EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

**JAUN/ANDRE HORI:**

Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorriz, Gasteizen, Lehendakaritzako egoitzan, **2024ko AZAROAREN 26an,** 10:00etan, egingo den bilerarako deia egiten zaizu. Honako hau izango da

**EXCMO\A. SR.\A:**

De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, convoco a V.E. a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakaritza, a las 10:00 horas del día **26 DE NOVIEMBRE DE 2024**, con el siguiente

| GAI-ZERRENDA | | ORDEN DEL DÍA |
|---|---|---|
| Aurreko bileraren akta irakurri, eta, hala badagokio, onartzea. | 1 | Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la sesión anterior. |
| **LEHENDAKARITZA** | | **LEHENDAKARITZA** |
| Dekretu-proiektua, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena. | 2 | Proyecto de Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional de Lehendakaritza. |
| **KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA** | | **DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA** |
| Dekretu-proiektua, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena. | 3 | Proyecto de Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística. |

4

Dekretu-proiektua, baimena ematen diena, alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari "Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Ukanduna SL" erantzukizun mugatuko sozietatearen kapital-gehikuntzan parte har dezan, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren titulartasunpeko akzioen ordezkaritzari, sozietate horren estatutuen 6. artikulua aldatzeko onespena eman dezan.

Proyecto de Decreto por el que se autoriza a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi la toma de participación en la ampliación de capital en la sociedad de responsabilidad limitada "Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L.", y se autoriza a los representantes de las acciones titularidad de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi a prestar su conformidad a la modificación artículo 6 de los estatutos sociales de dicha sociedad.

5

Erabaki-proposamena, Euskadiko Orkestra, S.A. Sozietate Publikoaren Administrazio Kontseiluko Kontseilariak kargutik kendu, izendatu eta berresteari buruzkoa.

Propuesta de Acuerdo de cese, nombramiento y ratificación de consejeros del Consejo de Administración de la Sociedad Pública Orquesta de Euskadi, S.A.

## OGASUN ETA FINANTZA SAILA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

6

Erabaki-proposamena, kreditu globala diruzaintzako gerakinen kontura zabaltzekoa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailak 2024ko ekitaldian dituen kreditu-beharrizanei erantzuteko, Bilakatu 2021 eta 2022 deialdietako 2023ko ekitaldian hartutako eta gauzatu gabeko konpromisoak finantzatzeko, 25.556.080,63 euroko zenbatekoarekin.

Propuesta de Acuerdo de ampliación del Crédito Global con cargo a Remanentes de Tesorería, para atender las necesidades crediticias del Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad en el ejercicio 2024, al objeto de financiar los compromisos adquiridos y no ejecutados, en el ejercicio 2023, de las convocatorias Bilakatu 2021 y 2022, por importe de 25.556.080,63 euros.

7

Erabaki-proposamena, aurrekontu-plantilla aldatzekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legearen 13.4 artikulua aplikatuz.

Propuesta de Acuerdo de modificación de plantilla presupuestaria, en aplicación del artículo 13.4 de la Ley 21/2023, de 22 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2024.

8

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Gernika-Lumoko Santa Klara komentua zuzenean eskuratzeko prozedurari, eraikinak duen kultura-esanahiagatik eta Euskadiko memoria historiko-demokratikoarekin duen loturagatik.

Propuesta de Acuerdo de autorización del procedimiento de adquisición directa del Convento de Santa Clara en Gernika-Lumo, por su significado cultural y vinculación a la memoria histórico-democrática de Euskadi.

## GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

## DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO

| | | |
|---|---|---|
| Dekretu-proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailetako eta erakunde autonomoetako lanpostu-zerrendak onartzen dituen Dekretua. | 9 | Proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se aprueban las relaciones de puestos de trabajo de los Departamentos y Organismos Autónomos de la Administración de la Comunidad Autónoma. |
| Erabaki-proposamena, zeinaren bidez Jaurlaritzaren iritzia ematen baita, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Talde Mistoa-Sumar eta EH Bildu legebiltzar-taldeek Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legea aldatzeko egindako Lege-proposamena aintzat hartzeari dagokionez. | 10 | Propuesta de Acuerdo de manifestación del criterio del Gobierno en relación con la toma en consideración de la Proposición de Ley formulada por los grupos parlamentarios Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, Grupo Mixto-Sumar y EH Bildu, de modificación de la Ley 11/2019, de 20 de diciembre, de cooperativas de Euskadi. |
| Erabaki-proposamena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren Kontseilu Aholku-emailean izango duen ordezkaria izendatzekoa. | 11 | Propuesta de Acuerdo de designación de representante de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el Consejo Consultivo de la Autoridad Vasca de Protección de Datos. |
| Erabaki-proposamena, hasiera ematekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2022rako Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzen duen 2022ko maiatzaren 24ko Gobernu Kontseiluaren Erabakia eta erabaki horretako akatsak zuzentzeko Erabakia ofizioz berrikusteko prozedurari. | 12 | Propuesta de Acuerdo por el que se inicia el procedimiento de revisión de oficio del Acuerdo de Consejo de Gobierno de 24 de mayo de 2022, por el que se aprueba la Oferta de Empleo Público para el año 2022 de la Administración Educativa de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y del Acuerdo de corrección de errores del mismo Acuerdo. |
| Eduki ekonomikoa duten agindu eta ebazpenen zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin. | 13 | Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno. |
| **INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA** | | **DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD** |
| Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Arabako Foru Aldundiarekin lankidetza-hitzarmen bat izenpetzeko, otsoaren eta abeltzaintza estentsiboaren arteko baterako existentziaren aldeko neurriak ezartzeko. | 14 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un Convenio de colaboración con la Diputación Foral de Álava, para establecer medidas en favor de la coexistencia entre el lobo y la ganadería extensiva. |
| **SEGURTASUN SAILA** | | **DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD** |

15 Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta CIFP Mendizabala LHIIren arteko kudeaketa-gomendiorako akordioa izenpetzeko, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuetako eta salbamenduko zerbitzuetako langileei ofizioetako prestakuntza emateko.

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción del Acuerdo de encomienda de gestión entre la Academia Vasca de Policía y Emergencias y CIFP Mendizabala LHII, en materia de formación en oficios para el personal de los servicios de prevención y extinción de incendios y salvamento.

16 Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta CIFP Murgia LHIIren arteko kudeaketa-gomendiorako akordioa izenpetzeko, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuetako eta salbamenduko langileentzako tresnei buruzko prestakuntza emateko.

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción del Acuerdo de encomienda de gestión entre la Academia Vasca de Policía y Emergencias y el CIFP Murgia LHII, en materia de formación en herramientas para el personal de los servicios de prevención y extinción de incendios y salvamento.

17 Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Eraiken CIFP Construcción LHIIren arteko kudeaketa-gomendiorako akordioa izenpetzeko, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuetako eta salbamenduko zerbitzuetako langileei eraikuntzako prestakuntza emateko.

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción del Acuerdo de encomienda de gestión entre la Academia Vasca de Policía y Emergencias y Eraiken CIFP Construcción LHII, en materia de formación en construcción para el personal de los servicios de prevención y extinción de incendios y salvamento.

## HEZKUNTZA SAILA

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

18 Erabaki-proposamena, CPES Otxarkoaga BHIPri zuzeneko dirulaguntza ematekoa, inoren kargura ez dauden ikasle etorkin adingabeei Hezkuntzako Lehen Harrera egiteko Programako 6. eta 7. taldeak finantzatzeko 2023-2024 ikasturtean.

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa al CPES Otxarkoaga BHIP, para la financiación de los grupos 6 y 7 del Programa de Primera Acogida Educativa al alumnado inmigrante menor no acompañado (MENA) durante el curso 2023-2024.

19 Erabaki-proposamena, "Gao Lacho Drom", "Kale Dor Kayiko" eta "Amuge" irabazi-asmorik gabeko entitateei zuzeneko dirulaguntza ematekoa, 2024-2025 ikasturtean ikasle ijitoekin errefortzu-jarduerak egiten dituzten bitartekarien soldata-kostuaren igoerari aurre egiteko, esku-hartze sozialeko lurralde-hitzarmen kolektiboak onartu ondoren.

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a las entidades sin ánimo de lucro "Gao Lacho Drom", "Kale Dor Kayiko" y "Amuge", para hacer frente al incremento del coste salarial de los y las mediadoras que realizan actividades de refuerzo con el alumnado gitano durante el curso 2024-2025, por aprobación de los convenios colectivos territoriales de intervención social.

Erabaki-proposamena, Egibide BHIP salbuestekoa dirulaguntza izendun baten lehenengo ordainketa jasotzeko berme erreala eratu beharretik, 2024-2025 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-konplexutasun bereziko itunpeko ikastetxeei dirulaguntzak emateko Gobernu Kontseiluak hartutako Erabakiaren esparruan.

20 Propuesta de Acuerdo de exoneración al IES Egibide BHIP de la necesidad de constituir garantía real para la percepción del primer pago de una subvención nominativamente asignada, en el marco del Acuerdo de Consejo de Gobierno de concesión de subvenciones a centros concertados de especial complejidad educativa de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para el curso 2024-2025.

**ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y AGENDA URBANA**

Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Ekonomisten Elkargoarekin eta Kontuen Zinpeko Zentsoreen Institutuaren Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Elkartearekin sinatu beharreko lankidetza-hitzarmena, etxebizitza-edukitzaile handiek eskatutako hipoteka-bitartekaritzako zerbitzua emateko.

21 Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento de un Convenio de colaboración a suscribir con el Colegio de Economistas y el Instituto de Censores Jurados de Cuentas-Agrupación Territorial del País Vasco, para la prestación del servicio de mediación hipotecaria solicitada por los grandes tenedores de vivienda.

**OSASUN SAILA**

**DEPARTAMENTO DE SALUD**

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa eta aintzat hartzekoa Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuarekin sinatu beharreko lankidetza-hitzarmena, arreta digital pertsonalizatua emateko, gaixotasun arraroak eta alboko esklerosi amiotrofikoa (AEA) dituzten pazienteentzako osasun-arreta hobetzeko eta zorro genomikoa handitzeko, Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (Next Generation EU).

22 Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros y de toma en conocimiento del Convenio de colaboración a suscribir con Osakidetza-Servicio vasco de salud, para la atención digital personalizada, mejora de la atención sanitaria a pacientes con enfermedades raras y ELA, y ampliación de la cartera genómica en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia financiado por la Unión Europea - Next Generation EU.

**ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA**

**DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO**

Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretua indargabetzen duena.

23 Proyecto de Decreto por el que se deroga el Decreto 271/2012, de 4 de diciembre, por el que se regulan las subvenciones para el fomento de actividades del tercer sector en el ámbito de la intervención social en el País Vasco.

| | | |
|---|---|---|
| Erabaki-proposamena, Begirune Fundazioari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, 2024an immigrazio-arloko ekintzen garapena finantzatzeko. | 24 | Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a Fundación Begirune Fundazioa, para financiar el desarrollo de acciones en el ámbito de la inmigración, durante el año 2024. |
| **MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA** | | **DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD SOSTENIBLE** |
| Erabaki-proposamena, baimena ematekoa ADIF-Alta Velocidad enpresa-entitate publikoarekin hitzarmen bat izenpetzeko, Gasteizen trenbidea integratzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sarearekin lotzeko Arkautiko lotuneko (II. zatia) plataformaren eraikuntza-proiektua idazteko eta obrak egiteko enkargua emateko. | 25 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un Convenio con la entidad pública empresarial ADIF-Alta Velocidad, para la encomienda de la redacción del proyecto de construcción y la ejecución de las obras de plataforma del nudo de Arkaute (tramo II) de la integración del ferrocarril en Vitoria-Gasteiz y su conexión con la Red Ferroviaria en el País Vasco. |
| Erabaki-proposamena, larrialdi-kontratu hau aintzat hartzekoa: Bilbao-Donostia lineako 94-683 eta 94-740 KPen arteko ezpondak eusteko obra egitekoa. | 26 | Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del contrato de emergencia para la obra de sostenimiento de los taludes entre los PKs 94-683 y 94-740, en la línea Bilbao-Donostia. |
| **JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA** | | **DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y DERECHOS HUMANOS** |
| Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastu-kontratua baimentzekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren mendeko justizia-jauregietan eta adingabeen hezkuntza- eta barneratze- zentroetan zaintza- eta segurtasun-zerbitzua kontratatzeko. | 27 | Propuesta de Acuerdo de autorización de un contrato de gasto superior a 5.000.000 de euros, para la contratación del servicio de vigilancia y seguridad en los Palacios de Justicia y centros educativos y de internamiento de menores, dependientes del Departamento de Justicia y Derechos Humanos de la Comunidad Autónoma de Euskadi. |
| Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Irsearaba S. Koop. gizarte-ekimeneko Gizarteratzeko Institutuarekin sinatu beharreko lankidetza-hitzarmena, Arabako Lurralde Historikoan ingurune irekiko neurriak gauzatzeko. | 28 | Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del Convenio de colaboración a suscribir con el Instituto para la Inclusión Social Irsearaba, S. Coop. de Iniciativa Social, para la ejecución de medidas en medio abierto en el Territorio Histórico de Araba. |
| Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Berriztu Hezkuntza Elkartearekin sinatu beharreko lankidetza-hitzarmena, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ingurune irekiko neurriak gauzatzeko. | 29 | Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del Convenio de colaboración a suscribir con la Asociación Educativa Berriztu, para la ejecución de medidas en medio abierto en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. |

**IZENDAPENAK ETA KARGU-KENTZEAK**
**LEGEBILTZAR-EKIMENAK**

**NOMBRAMIENTOS Y CESES**
**INICIATIVAS PARLAMENTARIAS**

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 25a.

En Vitoria-Gasteiz, 25 de noviembre de 2024.

**IZPTA./FDO.: UBARRECHENA CID, MARIA.**
**GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU, JAURLARITZAREN IDAZKARI ETA BOZERAMAILEA**
**CONSEJERA DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO, SECRETARIA Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO**

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

El Lehendakari del Gobierno Vasco

**LEHENDAKARIAREN BAIMENA, GOBERNU KONTSEILUAREN 2024ko AZAROAREN 26ko BILERA TELEMATIKOKI EGITEKO**

KONTUAN IZANDA

2022ko maiatzaren 24an, Gobernu Kontseiluak erabaki bat hartu zuela, Gobernu Kontseiluaren bilera telematikoak puntualki egiteko jarraibideak onartzen dituena, eta erabaki horren arabera, beharrezkoa dela lehendakariak, berariaz eta arrazoituta, bilera horiek telematikoki egitea baimentzea.

Lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Bruselara egingo duen bidaia instituzionala dela eta, Ibone Bengoetxea Otaolea andrea azaroaren 26an Euskaditik kanpo izango dela; eta, beraz, ezin izango dela egun horretan Vitoria-Gasteizen egingo den Gobernu Kontseiluaren bilerara fisikoki bertaratu.

Aztergaien zerrenda ohikoa dela ikusita eta ebatzi beharreko gaiak kontuan hartuta, egokia dela bilera telematikoa egitea, arestian aipatutako Gobernu Kontseiluaren Erabakian adierazitako baliabide teknikoak erabiliz.

Baimen honetan adierazitako baliabide teknikoek aukera ematen dutela, bideokonferentzia bidez, irudia eta soinua bi noranzkoetan eta aldi berean komunikatzeko; eta hortaz, geografikoki urruti dauden bi pertsonaren edo pertsona-talderen arteko denbora errealeko ikusizko, entzunezko eta ahozko interakzioa izateko. Halaber, bermatu egiten dutela eztabaidetan eta hausnarketetan askatasunez parte hartzea.

Baimen honetan adierazitako baliabide teknikoek modu egokian bermatzen dituztela, halaber, parte-hartzaileen identitatea eta segurtasuna, kanpoko interferentziarik ez egotea, esku hartzeko askatasuna eta eztabaiden izaera sekretua edo erreserbatua.

**AUTORIZACIÓN DEL LEHENDAKARI PARA QUE LA REUNIÓN DEL CONSEJO DE GOBIERNO DE 26 DE NOVIEMBRE DE 2024 SE CELEBRE DE FORMA TELEMÁTICA**

CONSIDERANDO

Que con fecha de 24 de mayo de 2022 el Consejo de Gobierno adoptó un Acuerdo por el que se aprueban las directrices para la celebración puntual de reuniones telemáticas de Consejo de Gobierno, siendo necesario conforme al mismo que el Lehendakari autorice, de forma expresa y motivada, la celebración de dichas reuniones de forma telemática.

Que, con motivo del viaje institucional a Bruselas de la Vicepresidenta Primera del Gobierno y Consejera de Cultura y Política Lingüística, Dña. Ibone Bengoetxea Otaolea estará fuera de Euskadi el día 26 de noviembre, fecha de la celebración del Consejo de Gobierno por lo que no podrá asistir físicamente a la reunión a celebrar en Vitoria-Gasteiz.

Que, dado el carácter ordinario del orden del día, y a la vista de los asuntos a resolver, procede realizar una reunión telemática utilizando los medios técnicos que se indican en el Acuerdo de Consejo de Gobierno antes referido.

Que los medios técnicos indicados en esta autorización permiten, mediante videoconferencia, la comunicación bidireccional y simultánea de imagen y sonido y, por tanto, la interacción visual, auditiva y oral en tiempo real entre dos personas o grupos de personas geográficamente alejadas, garantizando la libre participación en los debates y deliberaciones.

Que los medios técnicos indicados en esta autorización garantizan también de forma adecuada la identidad y seguridad de las personas participantes, la ausencia de interferencias externas, la libertad de intervención y el carácter secreto o reservado de los debates.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

El Lehendakari del Gobierno Vasco

BAIMENA EMATEN DUT

1.- Gobernu Kontseiluak 2024ko azaroaren 26an egingo duen bilera telematikoki egiteko, honako Baimen honetan adierazita dauden baldintzetan.

2.-Vitoria-Gasteiztik eta Bruselatik telematikoki konektatuko diren Gobernu Kontseiluko kideei ZOOM plataforma digitala erabiltzeko baimena ematen diet, horretarako, esteka honetan sartu beharko dute:
https://euskadi.zoom.us/j/92441389104

3.- Honako baimen hau bilkura-deialdiari eransteko, egun horretako gai-zerrendarekin batera.

AUTORIZO

1.- Que la reunión del Consejo de Gobierno de 26 de noviembre de 2024, se celebre de forma telemática, en los términos expresados en la presente Autorización.

2.- Que las y los miembros del Consejo de Gobierno que se conecten telemáticamente desde Vitoria-Gasteiz y desde Bruselas, deberán de utilizar la plataforma digital ZOOM, accediendo al siguiente enlace:
https://euskadi.zoom.us/j/92441389104

3.- Que la presente autorización se incorpore a la convocatoria de la sesión junto con el orden del día.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 19an.

Imanol Pradales Gil 2024.11.19 13:04:35 +01'00'

IMANOL PRADALES GIL.

Lehendakaria.